BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




EZTABAIDA: 'PRESTIGE' ETA JAURLARITZA /9

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko otsailaren 21a • IV. urtea • 99. zenbakia • DOAN BANAT



**Goienka2a**
Urretxindorrak taldeak bilduma diskoa aurkeztu du

**ANTZUOLA**
Ohitura zaharren gaineko liburua domekan aurkeztuko dute /6

**JUAN MARI GARITANO**
*"Nagusilanekin, bakarrik bizi diren zaharrei bizipoza eragin nahi diegu"* /7

ASTEKO GAIA: IKERLANEK INSTALAZIO BERRIAK INAUGURATU DITU /2-3

## Ibarreko teknologia abangoardia: Ikerlan

Ikerlan teknologia ikerkuntza zentroak Arrasaten duen egoitza handitu eta berritu egin du, hiru laborategi berrirekin. Hor, lehengo lanean sakondu eta jarduera mota berriei ekingo die Ikerlanek. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, besteak beste, izan zen inaugurazio ekitaldian.



Lehendakaria eta MCCko presidentea Ikerlaneko mikro-teknologien laborategi berrian, azalpenak jasotzen. ENEKO AZKARATE

EUSKALGINTZAREN AURKAKO POLIZIA OPERAZIOA

## 'Egunkaria'-ren egoitzak itxi dituzte

Euskalgintzako erakunde, talde eta elkarteek, euskarazko hedabideek, eta euskal indar politiko eta sindikatu gehienek euskalgintzaren aurkako erasotzat jo dute eguen goizaldean *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurka egindako polizia operazioa. *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendaritza taldeko kide eta kide izandako hamar lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak, eta Andoain, Iruñea, Bilbo eta Gasteizko egoitzak zigilatu zituen. Biharko, zapatua, manifestaziorako dei egin dute. /4-5

- *Euskalgintzaren aurkako erasotzat jo dute 'Egunkaria'-koek*
- *Egoera salatzeko, kale bilkurarako dei egin dute biharko*




Goienako langileek atzo Bergaran egin zuten elkarretaratzea. AINTZANE IRIZAR




Koloretako ploteoak, mugarik gabeko neurrietan eta plastifikatuta, luma-kartoian jarrita edo display-rik egokienetan.
Atai
Telf.: 943 79 81 66
E-mail: atai@vianwe.com
ARETXABALETA



• Atsedenean espezialistak
• Koltxoiak, kanapeak...
• Estalki, edredoi nordikoak...
• Ohe artikulatuak



Atseden hartzeko sistemarik hoberenak
beds
KOLTXOI DENDAK
%20-30
MERKEALDIAK
Kalitate osoarekin
ZARUGALDE 25 • ARRASATE • Tel.: 943 77 18 35


OÑATI

### Akordiorik lortu ez, eta greban segitzen dute Chinchurretan

Akordio barik amaitu zen Oñatiko Chinchurreta enpresako Enpresa batzordeko eta Zuzendaritzako kideen artean Donostian, Lan Harremanen Kontseiluko bulegoan, atzo, eguena, egindako batzarra. Langileen ordezkarien ustez, Zuzendaritzak ez du arazoaren muinera iritsi nahi. 40 egun daramatzate greban.

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Ibarreko ab

## Ikerlan teknologia ikerkuntza zentroak komunikazio eta elektronik

LEIRE KORTABARRIA

Ikerlan teknologia ikertegiak instalazio berriak ditu aste honetatik aurrera. Olandixoko gunean kokatuta dagoen euren egoitzari hiru solairuko beste eraikin bat gehitu diote, 2.114 metro koadro, guztira. Egoitza eta hango ekipamendua 5,2 milioi euro kostatu dira.

Inaugurazio ekitaldian, joan den eguaztenean, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Industria eta Merkataritza sailburu Josu Jon Imaz, MCCko Kontseilu Orokorreko presidente Jesus Catania, Ekonomia eta Turismoko diputatu Jose Ramon Beloki, Ikerlaneko presidente Santiago Álvarez eta zuzendari nagusi Carlos Redondo izan ziren.

Ikerlanek, enpresekin eta beste ikerkuntza zentro batzuekin lankidetzan, teknologia jakituria aplikatzen du enpresarendako baliagarri izan daitezkeen produktuak sortzeko, edo daudenak hobetzeko. Instalazio berrien helburua da Ikerlanen jarduerako hainbat alorri bultzada ematea: hain zuzen ere, produktu mekaniko-elektronikoen ikerkuntzari, beste batzuen artean.

### HAUTSIK SAR EZ DADIN

Batik bat, hiru gune nabarmentzen dira eraikin berrian. Gela deigarriena mikro-teknologiak lantzeko laborategia da. Areto guztiz zuria da, hermetikoki itxita, eta hara sartzeko, jantzi berezia eraman beharra dago: "Kanpoko hautsik eta elementurik sar ez dezaten egiten da hori", azaltzen dute Ikerlaneko arduradunek. "Barruan lantzen den teknologia oso delikatua da, eta zikinkeria txikienak kalte egin diezaioke". Barruan mikroskopioak eta, lente azpian, XXI. mendean, inoiz baino txikiagoak diren txipak daude. Horrek baieztatzen du etorkizuna tamaina txikian datorrela.

*Produktu mekaniko-elektronikoak ikertuko dituzte, batik bat, laborategi berrietan*

*Haririk gabeko komunikazioen arloan, berez egosten duen lapikoa lantzen dabiltza*

Bestetik, entsegu akustiko eta elektromagnetikoen laborategia dago. Ikerlanek azaltzen du horren erabilera: "Etxetresna elektrikoek, sortu berriak direnean, etxeko gainerako tresnak nahas ditzaketen uhinak sor ditzakete, edo berak besteengatik uhin horiek jaso. Hemen, uhin horiek sor ez daitezen zer egin behar den ikertzen da, gero produktu hori guztiz garatu eta homologatu ahal dadin".

Hirugarren laborategi aipagarri bat komunikazioen laborategia da. Aipatutako bi jarduerak lehendik ere egiten zituen Ikerlanek; komunikazioei, ordea, iaz ekin zien erakundeak.

Zehatz-mehatz, haririk gabeko komunikazioa dabil jorratzen gaur egun Ikerlan. Horrek aplikazio bitxiak izan ditzake, Pedro Etxabe komunikazio arduradunak azaltzen digunez: "Fagorrekin batera, suaren intentsitatea berez erregulatzen duen lapiko espres bat ikertzen gabiltza. Hori bitrozeramikaren eta lapiko gaineko sentsore baten arteko komunikazioaren bidez lortzen da", diosku.

### IBARREAN, MAILA BIKAINA

Ikerlanek betidanik izan du lotura estua Debagoieneko bereizgarri diren hainbat sektorerekin: besteak beste, makinaria, elektragailu, elektronika eta informatika, automozio eta energia arloekin. Aplikazio askotan aurrekari izan da Ikerlan. Adibidez, aireportuetako panel informatiboetan erabiltzen den aplikazio berezi bat Ikerlanek garatu zuen lehenengo aldiz; eta hori adibide bat besterik ez da. Euskal Herriko enpresa askok –Debagoieneko enpresa garrantzitsuenetatik hasita– Ikerlanekin egiten dute lan: izen batzuk aipatzearren, Ikusi, Irizar, Azkoyen, Orona…. Euskal Herriko, Espainiako eta mundu zabaleko hainbat enpresarekin lan egin ondoren, Ikerlanek Debagoieneko enpresak onenen artean daudela dio: "Ibarrean teknologia eta aurrerakuntza maila handia dago. Fagor, Fagor Automation, Copreci, ibarreko makina enpresak… Estatuko liderrak dira euren sektoreetan", diote.

Ikerlanek berak beti erakutsi du geroago eta proiektu aurrekariagoak aurrera ateratzeko bokazioa. Horren adibide da gaur egun Ikerlan garatzen dabilen




Mikroteknologien laboratorio berria beti itxita dago, kanpoko zikinkeriak txipei kalterik egin e




Ez baduzu inoiz Stressless® bat probatu, ez dakizu zer den atseden hartzeaz gozatzea. Stressless®-ko besaulkien eta sofen gamak, bere teknologia aurreratuari esker, zuk behar duzun erosotasun plusa eskaintzen dizu. Eta hamar urteko bermea duen Plus Sistema™ sistema esklusiboarekin. Ekornes®-ko Stressless-ek bakarrik eskainiko dizu hori guztia, eta, beste inor bezala, zure mugimenduei egokituko da. Zure morfologiari. Zure estiloari. Baita dekorazioari ere.

* Stressless®, Ekornes® talde norvegiarraren marka erregistratua da.

Zatoz eta ikus ezazu Stressless® Confort Gunea kontzesionario ofizialean:

Noche y Día
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24
EKORNES®

# pangoardia

## ka arloetan lan egiteko laborategi berriak inauguratu ditu


LEIRE KORTABARRIA

z diezaien.

asmo handiko proiektu bat: elektrizitatea sortzeko erregaidun pilak, hain zuzen ere. Hala, etxerako eta enpresetarako pilak sortzeko bidean dago Ikerlan, eta laster aurreproiektu bat edukiko dutelakoan daude.

**PEDRO ETXABE** / MARKETIN ARDURADUNA

## *"Eguneroko tresna asko garatu ditu Ikerlanek"*

**Ikerlan ikerketa zentroko komunikazio arduradun Pedro Etxabek dibulgatzaile lanak egin ditu gurekin, eta teknologia kontuez jardun dugu.**



**Ikerlan teknologia ikerkuntzako erreferentzia bihurtu da ibarrean, eta baita kanpoan ere, ezta?**

Batik bat, Euskal Herriko enpresekin egiten dugu lan. Eurek ekartzen dizkigute lantzen ari diren produktuak, eta produktua hobetzeko ikerketak eskatzen dizkigute. Enpresendako proiektuak ere egiten ditugu: enpresak nahi duenaren planteamendua egiten du, eta guk garatu egiten dugu. Madrilgo, Bartzelonako... enpresekin ere badugu harremana. Horrez gain, Europako Batasuneko ikerkuntza arloko egitasmoetan hartzen du parte Ikerlanek.

**Zuen lana publikoarengandik oso urruti gelditzen da... Ala ez?**

Enpresa eta industria teknologia bakarrik ez, egunero erabiltzen eta ikusten diren tresnak moldatu eta ikertu izan ditugu: adibidez, igogailuak, txanpon bidez funtzionatzen duten salmenta-makinak, aireportuetako panel informatiboak, etxeko elektratresnak...

**Zelakoa izango da etorkizuneko etxea?**

Horren gakoa da etxebizitza baten geroago eta tresna berriagoak sartzea, bizimodua errazteko: adibidez, etxeko aparailu guztiak kontrolatzeko dispositiboa. Orain, badaude hainbat proiektu, eta horiek merkatura daitezke, baina jendea ez da hain produktu garestiak ordaintzeko gertu egongo. Kontua ez da ikustea jendeak ikusminik duen, baizik eta gertu ote dagoen, eta produktu berri horien beharra sumatzen duen. Azkenean, ordea, jendea joango da horiek onartzen.

> *"Txanpon-makinek, etxetresnek, igogailuek... geuk landutako elementuak dituzte"*



**Bizikleta finko tolesgarria**

Dikar enpresak eta Ikerlanek ia guztiz toles daitekeen bizikleta finkoa egin dute. Balazta-sistema magnetikoari esker, indar txikien egitea ahalbidetzen du bizikletak. Pedalei eragitea ere bereziki erosoa da.



**Egosketa automatikoa**

Fagorrek garatutako bitrozeramikak eta lapikoak osatutako sistema honek, lapiko barruko tenperatura, lurrina... neurtu ondoren, sukaldeak ematen dion bero kantitatea modu automatikoan erregulatzen du.



**Autobus-aukerak, ordenagailuz**

Irizar enpresaren bezeroek nahi duten autobus mota enkargatu, kostuak kalkulatu... ahal ditzaten programa informatikoa dute orain. Zati grafiko bat du, eta bere kasa eguneratuz doan kalkulu orri bat ere bai.



**Osasun arloko larrialdietarako**

Bat-batean bihotza gelditzerakoan, aparailu honek berehalako deskarga elektrikoa eragiten dio gaixoari. Gutxieneko prestakuntza duen pertsona batek ere erabil dezakeenez, ezinbesteko tresna da larrialdietan.



**Txanpongailuendako esku-terminala**

Txanponekin lan egiten duten makinak (janariak, edariak... saltzen dituztenak) kontrolatzeko aparailua da, makinak txanponak errekonozi ditzan. Berritasuna da funtzionatzeko modua: memoria txartelekin.



**Gasezko labe berria enpresendako**

Fagor Industrialen bezero diren ostalaritza enpresek hainbat lan-egoeratan erabiltzeko labea da hau. Hainbat gas motatara, hainbat potentziatara... egokitzen da. Errekuntza sistema bera ere berria da.

AIDE Informatika
Bailarako lehenak
12 urte
www.aide-informatica.com
Internetetik eskuragarri informatikarako 15.000 artikulu.
Prezioak, merke-merke eta eguneratuak.
Zerbitzua gertu eta zuen neurrira.
Basabe poligonoa FO-9. Aretxabaleta. 943-771372

# Euskalgintzari erasoa: 'Egunkaria' itxi eta hamar lagun atxilotu dituzte

*ETArekin lotu ditu Espainiako Auzitegiko Del Olmo epaileak; manifestazioa deitu dute zapatuan, Donostian, 17:00etan*

GOIENKARIA

**Euskalgintzako erakunde, talde eta elkarteek, euskarazko hedabideek, eta euskal indar politiko eta sindikatu gehienek euskalgintzaren aurkako erasotzat jo dute eguen goizaldean *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurka egindako polizia operazioa. Bihar, zapatua, manifestaziorako dei egin dute. Manifestazioa Donostian izango da, Antiguatik irtenda, 17:00etan.**

Manifestaziorako deia Euskararen Kontseiluak egin du; eguen goizean Martin Ugalde kultura parkean, *Euskaldunon Egunkaria*-ren egoitzaren ondoan, euskalgintzako, indar politikoetako eta sindikatuetako ordezkariek eginiko batzarrean hartu zen erabakia. Han elkartu ziren, era berean, *Egunkaria*-ko langileak. Gaur eta ondorengo egunotan egunkaria kaleratzeko konpromisoa hartu zuten.




ARGAZKI PRESS

***Euskaldunon Egunkaria*-ko langileek eta hainbat euskara eragilek elkarretaratzea egin zuten eguen goizean, Andoainen.**

**HAMAR ATXILOTU**

Eguen goizaldean atxilotu zituen Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria*-ko gaur egungo eta aurreko Zuzendaritzetako hamar kide. Hauexek: Joan Mari Torrealdai, *Jakin* aldizkariko zuzendaria eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko Administrazio Kontseiluko presidentea; Iñaki Uria, *Euskaldunon Egunkaria*-ko kontseilari ordezkaria; Fermin Lazkano, gerente izandakoa; Xabier Oleaga, zuzendariorde izandakoa eta Ikastolen Elkarteko komunikazio arduraduna orain; Pello Zubiria, zuzendari izandakoa eta *Argia* aldizkariko zuzendari-albokoa; Txema Auzmendi, Herri Irratiko zuzendariordea eta *Egunkaria*-ko Administrazio Kontseiluko idazkaria; Luis Goia, bazkide sortzaile izandakoa; Xabier Alegria Udalbiltzako kidea, eta Imma Gobila, Egunkaria Sortzen taldean ibilitakoa.

Polizia operazioa Madrilgo Auzitegi Nazionaleko Luis del Olmo epailearen aginduz egin zen. ETAk ustez *Egunkaria* sortzen lagundu zuela eta, gainera, ustez diruz babesten duelako agindu zituen atxiloketok.

**EGOITZAK, ZIGILATUTA**

Guardia Zibilak Iruñea, Gasteiz eta Bilboko ordezkaritzak eta Andoaingo egoitza nagusiak zigilatu zituen. Zortzi ordutik gora iraun zuen Andoaingo egoitza nagusiaren miaketak. Goiz osoan furgonetak sartu eta irten ibili ziren materiala eramaten-edo. Halaber, atxilotuetako batzuk goiz eta eguerdi partean atera zituzten Andoaingo egoitza nagusitik autoetan, ustez Iñaki Uria eta Martxelo Otamendi. Paperezko formatuko *Egunkaria*-z gain, bertsio digitala ere zigilatu egin zuen Guardia Zibilak.

**'EGUNKARIA'-REN ORDEZ, 'EGUNERO'**

*Egunkaria*-ko langileak lanean ibili ziren atzo egun osoan *Egunkaria*-ren ordezkoa egiten. Gaur goizean kaleratu dute, *Egunero* izenarekin. Langileek hedabideetara bidalitako mezu baten, informazioa euskaraz emateko konpromisoari eutsiko diotela adierazi zuten: "Oztopo eta eraso guztien gainetik, orain arte bezala eguneroko informazioa euskaraz emateko lanean jarraituko dugun konpromisoa agertu nahi diogu gizarteari, informazioa geure hizkuntzan jasotzeko dugun eskubidea bermatzeko".

**"SALBUESPEN EGOERAN"**

Atxiloketak eta *Egunkaria*-ren itxiera direla-eta, "salbuespen egoeran gaudela" adierazterakoan bat etorri ziren euskalgintzako hainbat eragile: indar politiko, sindikatu, elkarte, erakunde, eta abar. Elkartasun mezu mordoa jaso zituzten *Egunkaria*-koek. *Sustatu.com* albistegi digitalean, esaterako, ia 100 mezu jaso ziren albiste horren inguruan.

Bestalde, Arrasateko euskalgintzako eragileek ekimenak antolatu dituzte: atzo, eguena, elkarretaratzeak deitu zituzten Arrasaten eta gaurko ere deitu dituzte, 20:00etan, Herriko Plazan. Era berean, gaur eguerdirako kale agerraldiak deitu dituzte. Eta biharko manifestaziorako dei egin dute. Manifestaziorako autobusak 15:00etan irtengo dira. Interesa duenak AEDra dei dezake. Gainerako herrietan ere antzeko ekimenak bultzatu dituzte.




## Goienako langileok ere bat egin dugu 'Egunkaria'-koekin

Goiena ibarreko euskarazko multimedia enpresako langileok ere bat egin dugu *Euskaldunon Egunkaria*-ko langileekin. Atzo (eguena) eguerdian, elkarretaratzea egin genuen Bergarako plazan. Han elkartu ginen Goiena Telebistako, Arrasate Irratiko, *Sustatu.com* albistegi digitaleko eta GOIENKARIA-ko kazetari eta kameralariak, bai eta Goienako administrazio eta merkatari arlokoak ere. Elkartasuna adierazi genien *Egunkaria*-koei une larriotan.



**Fermin Lazkano.**

## Fermin Lazkano bergararra, hamar atxilotuen artean

Eguen goizaldean, Guardia Zibilak atxilotutako hamar lagunen artean Fermin Lazkano bergararra dago. Gaur egun, Eibarren bizi da, eta etxean zegoela atxilotu zuten. *Euskaldunon Egunkaria*-ko hasierako lantaldean ibilia, urtetan gerente lanetan jardun du. Gaur egun, *Euskaldunon Egunkaria*-ko kontseilu orokorreko kide da. Euskal komunitatearendako Internet zerbitzuak eskaintzeko sortu zen Plazagunea enpresako bultzatzaile ere badugu.

## Adierazpen askatasunaren aurkako ekintza

*Euskaldunon Egunkaria*-ren kontrako operazioaren aurrean Goienako zuzendaritzak honako hau adierazi nahi du:

Benetan larria iruditzen zaigula aspaldian euskalgintzako erakundeek jasaten ari diren eraso bolada amaigabea, eta oraingo hau horren azken adierazlea dela.

Inolako epairik gabe komunikabide bat ixtea adierazpen askatasunaren aurkako ekintza justifika ezina iruditzen zaigula.

Gure elkartasuna adierazi nahi diegula atxilotuei eta euren senideei eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile eta irakurleei, eta euskarazko komunikabideak defendatzeko eta garatzeko ahaleginean lankidetzan jarduteko gure prestutasuna azaldu nahi diegula.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteko Zuzendaritza batzordea



**MARTIN GARITANO**
**'Gara'-ko kazetaria**

Amorruz hartu dut berria, Euskal Herria ordezkatzen duen edozein espresioren aurkako erasoekin ohitzen ari garelako. Eta kasu hau are larriagoa da adierazpen askatasuna suntsitzen duelako. Atxilotu dituzten lagunak bereziki gogoratu nahi ditut.



**TXARO IRAETA**
**Arizmendiko zuzendaria**

Badakigu inplikatuen artean Xabier Oleaga dagoela, Partaideren komunikazio arduraduna, eta harengan konfiantza osoa dugu. Gertatzen ari den guztia oinarrizko eskubideen eta askatasunaren aurka doa, euskaldun bizi eta sentitu nahi dugunon aurka.



**IÑAKI NAFARRETE**
**Aramaioko alkatea**

Ez dago eskubiderik. Euskaldunon eskubideak zapaltzen ari dira horrelako erabakiekin. *Egunkaria* legez kanpoko zerbait egiten ari bada, lehenik eta behin frogatu egin behar da. Eta ez bulegoak itxi inongo froga barik. Guztiz kontra nago.



**MIREN AZKARATE**
**Kultura sailburua**

Salbuespen egoeran gaude, euskara, kultura eta indarkeria lotzen direlako. Epaileak azkar argitu behar du kontua. Jaurlaritzak jarraipen exhaustiboa egingo du. Espero dugu inork ez duela zekentasunik izango euskal kultura biolentziarekin nahasteko.



**IÑAKI GALDOS**
**Gipuzkoako EAko burua**

*Egunkaria*-ren kontrako operazioak agerian uzten du Espainiako Estatuko epaile eta pertsona batzuen jarrera demokratiko eskasa. Bestalde, elkartasuna adierazi nahi diet, EA alderdiaren izenean, *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile guztiei.



**GERMAN KORTABARRIA**
**ELA**

Euskalgintzaren eta herrigintzaren zutabeen ezaugarrien kontrako erasoa izan da. Zuzenbideko estatua aipatzen da, baina hemen ez dago inolako garantiarik; irizpide politikoak dira nagusi eta horietan nagusia herri honen aurkako erasoa.



**JOXEMARI MUXIKA**
**Topaguneko presidentea**

Prentsa librearen kontrako erabakia, forma txarrekin hartutakoa eta berriro euskarazko komunikabideak toki txarrean utzi nahian egindakoa. Atxilotutakoak euskararen alde ikusi ditut beti; haiei eta haien familiei atxikimendua azaldu nahi diet.



**MAITE ARISTEGI**
**EHNEko idazkari ohia**

Euskaldun usaina duen guztiaren kontra dihardute aspaldian eta beldurra ematen du. *Euskaldunon Egunkaria*-n sentsibilitate guztiendako lekua egon da beti. Epaile espainolek txisteratik ateratako beste erbi bat da, estatu faxista baten jokaeraren adierazle.



**XABIER ZUBIZARRETA**
**Arrasateko alkatea**

Agerian uzten du Espainiako Estatuko ordezkariak Euskal Herriaren existentziaren aurka jotzen ari direla. Euskal hiritar moduan ditugun eskubideak ez dituzte errespetatzen, eta terrorismoaren aurka jarduten duten aitzakian egindako beste eraso bat da.



**XABIER LETONA**
**'Argia'-ko zuzendaria**

Adierazpen askatasunari eta euskalgintzari egindako erasoa izan da, lehen ere nahiko lan dugu orain horrelakoak jasotzeko. Gure elkartasuna adierazi nahi diegu gure lagunei, eta aurrerantzean ere bidelagun izango gaituzte euren proiektuan.



**ITXARO ARTOLA**
**Korrika Kulturalekoa**

Euskal kultura eta oro har Euskal Herria aspaldi jasaten ari den eraso etengabearen beste kapitulu bat da. Larriagoa, akaso, komunikabide bat delako. Euskaldun eta euskaltzale garenok sakon hausnartu beharra dugu eta kalera irten hori salatzeko.



**JUAN MARTIN ELEXPURU**
**Idazlea**

Ez da bakarrik euskararen eta adierazpen askatasunaren kontrako erasoa izan, baizik eta herrigintzaren eta gauza sentituenen aurkako eraso guztiz frontala. Horren guztiaren aurrean, tamaina bereko erantzuna ematea beharrezkoa da.

## *Elkartasun mezuak*

Elkartasuna adierazi nahi diogu *Euskaldunon Egunkaria*-ri Espainiako Estatuaren eta Justiziaren aldetik pairatzen ari den erasoaren aurrean.

Halaber, gure protesta eta haserrerik irmoena azaldu nahi dugu Espainiako agintariak, justiziaren izenean, ideiak kriminalizatzeko eta euskara eta euskal kulturarekin zerikusia duen guztia delitu susmopean jartzeko egiten ari diren eginahal etengabeengatik. Euskalduntasunaren kutsua duen guztiaren aurrean justizia arbitrarietate bihurtu digute, eta babesgabe sentitzen gara justiziaren arbitrarietate horren aurrean.

Euskal Kultura, euskara eta ideien adierazpena erasotuak sentitzen ditugula aldarrikatu nahi dugu.

Elkar, Oihuka, Ttartalo, Zabaltzen eta Bozako langileak

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak (TEEF) elkartasuna adierazi nahi die *Euskaldunon Egunkaria*-ri, bertako langileei, baita atxiloketa burugabe honek kaltetu dituen lagun eta erakunde guztiei ere. Atxiloketa hauen bidez *Euskaldunon Egunkaria*-ri eta euskarari eraso zuzena egin zaiola uste du TEEFk.

Bestalde, egoera honen aurrean TEEFtik eman daitekeen erantzunik eraginkorrena euskararentzat esparru berriak irabazteko lan egitea delakoan dago federazioa. Izango ahal dugu bihar goizean *Euskaldunon Egunkaria* irakurtzeko aukera, eta euskarazko produktu bat dagoen tokian, bi eta hiru egon daitezen lan egitera dei egiten ditugu euskaltzale guztiak.

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa

**MIKEL LIZARRALDE** / 'EUSKALDUNON EGUNKARIA'-KO LANGILEA

# *"Hemendik aurrera zer gertatuko den ez dakigu, baina kaltea eginda dago"*

**Lau debagoiendar dira *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile: Arantzazu Arroiabe aretxabaletarra, Idoia Etxeberria oñatiarra, Haritz Gallastegi elgetarra eta Mikel Lizarralde bergararra. Azken horrekin berba egin dugu langileen ikuspuntua jasotzeko.**



*"Euskalgintzaren kontrako beste eraso bat izan da, oso eraso larria, gainera"*

**Zela jakin duzu berria?**

Goizeko zazpietan Bergarako lagun batek deitu dit berria emateko. Sekulako sustoa hartu dut; alde batetik, harrituta geratu naiz, eta beste alde batetik, izugarrizko amorrua sentitu dut.

**Langileok zela bizi duzue egoera hau?**

Kezka handiarekin eta oso haserre. Alde batetik, kezkatuta gaude, gure lankide izandako hamar lagun atxilotu dituztelako, eta ez dakigulako zein egoeratan dauden. Bestetik, gure lana ezin dugunez egin, amorratuta. Egoitza zigilatu egin dute, eta ez dugu sartzeko aukerarik izan: ez dakigu zer eraman duten, lan egiteko material barik gaude... Ez dakigu hemendik aurrera zer gertatuko den, baina, dagoeneko, kaltea eginda dago.

**Ze balorazio egingo duzue?**

Ez dugu, oraindik, baloraziorik egin; dena dela, ikusten dugu euskalgintzaren kontrako eraso bat dagoela, eta horren barruan, eguenekoa beste eraso bat izan dela, oso eraso larria, gainera.

**Dena dela, egubakoitzean kioskoetan egongo zarete.**

Bai, horixe erabaki dugu. Eta ez egubakoitzean bakarrik, egunero argitaratzeko asmoa dugu. Hamabost lagun ari dira horretan lanean. Horretarako, noski, kanpoko laguntza handia izan dugu. Bide batez, elkartasuna adierazi diguten pertsona, alderdi politiko, elkarte eta talde guztiei langileon esker ona erakutsi nahi diegu.

BERGARA

## Gizarte Zerbitzuetan ari diren taldeendako dirulaguntzak

Eskaerak egiteko epea zabalik dago, eta 19.989 euro izendatu ditu Udalak horretarako. Onuradun izateko ezinbesteko baldintza da legez araututako elkartea izatea, irabazi asmorik gabekoa eta gizarte zerbitzuen arloan jardutea. Gainera, zerbitzu horiek Bergaran, Debagoienean edo Gipuzkoan garatu beharra dago.

Eskariak Bergarako Udalean egin beharko dira, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Eskaerok egiteko azken eguna martxoaren 21a izango da. /M.B.

ELGETA

## Frontoi zaharra eskolako umeek jolasteko egokituko du Udalak

Urteak dira Guraso Elkarteak eskolako umeendako jolastoki estalia eskatzen diharduela. Hala, Udalak eta Patronatuak akordioa egin dute frontoi zaharra egokitzeko. Martxoan hasiko dituzte egokitze lanak. Lanok 2.404 euroko aurrekontua izango dute. Frontoi zaharraren eta eskolaren arteko bidea ere lan horiekin batera egingo dute. Aste Santua aurretik umeendako jolastoki estalia gertu egotea espero dute. Bitartean, azken hilabeteotan moduan, eskolaren gaineko gela handian jolastuko dute umeek. /O.E.

ARAMAIO

## Dantzari beharra dute Aramaion, Txakolin dantza egiteko

Lagun Artean dantza taldeak dantzari beharra du. Nagusien dantza taldea osatzeko behar dituzte dantzariak; hain justu ere, Aramaion asmatutako Txakolin dantza egiteko. Kontua da datorren martxoaren 16an Artium museora joan behar dutela Txakolin dantza egitera, eta Aramaion ez dute lortu taldea osatzeko behar beste dantzari. Lau neska eta beste lau mutil behar dituzte. Hortaz, hortxe dago eskaera. Interesa duenak lehenbailehen jo dezala Lagun Artean dantza taldera. /U.M.



IKER BARANDIARAN

ARRASATE

## 2003ko aurrekontuen barruan, diru kopuru dezente handia gorde dute Cerrajerako etxebizitzetarako urbanizazio lanak egiteko

Atzo eztabaidatu zituzten aurrekontuak Udalean; eta proposatutako diru partiden artean, Cerrajerako urbanizazio lanak egiteko kopuru esanguratsua gorde dute: 1.200.000 euro (199.663.200 pezeta). Kontua da Saiolan eraikina dagoen lekutik eskualde ospitalerainoko inguru guztia txukundu behar dutela. Horrekin batera, han eraiki behar dituzten etxebizitzetarako (babes ofizialekoak tartean) azpiegiturak ere sartu behar dituzte; hau da, saneamendua, argindarra… Are gehiago, dagoeneko hasi dira lan horiek egiten; hain justu ere, INEMen bulegoa dagoen eraikinaren ondoko aparkalekuan. Edozelan ere, esan beharra dago oraindik ez dagoela etxebizitzak egiten hasteko egun zehatzik, Jaurlaritzan proiektua idazten dabiltza-eta. /U.M.

ESKORIATZA

# Ia sei milioi euroko aurrekontua onartu zuen udalbatzarrak

Aurtengo ekitaldirako 5,9 milioiko aurrekontua onartu zuen Eskoriatzako udalbatzarrak. Hamar zinegotzi izan ziren otsailaren 13ko osoko bilkuran –PSEkoa falta zen–, eta Ezker Batukoak izan ezik, gainerakoek aurrekontuen alde bozkatu zuten.

Aurten inbertsiotarako diru gutxiago bideratu dute, eta horregatik, iazko aurrekontuarekin alderatuta, %8,5 jaitsi da. Gastuei dagokienez, bestalde, ez dago aldaketa handirik.

Aurtengo inbertsiorik aipagarriena Santa Ana auzoko urbanizazio lanak egiteko izango da, ia 400 milioi euro. Hasita dauden proiektuak bukatzeko ere egongo da dirua: Ibarraundi baserriarendako eta udaletxearendako, esaterako. Kiroldegia egokitzeko lanak ere egingo dituzte, eguzki energia lortzeko azpiegitura jarri gura dute-eta. /M.A.

**UDAL AURREKONTU OSOA 5.888.074 €**

**INBERTSIO AIPAGARRIENAK**

| | |
|---|---|
| **Santa Anako urbanizazioa** | 380.000 € |
| **Ibarraundi baserria** | 300.000 € |
| **Kiroldegia** | 240.169 € |
| **Elizateetako errepideak** | 189.000 € |
| **Udaletxeko lanak** | 150.000 € |
| **Kanposantua** | 120.000 € |
| **Oztopo arkitektonikoak** | 90.000 € |
| **Argiak** | 90.000 € |
| **Kultura etxea** | 30.000 € |

ANTZUOLA

# Ohitura zaharren gaineko liburua domekan aurkeztuko dute

*Antzuolako ohitura zaharrak* liburua domeka eguerdian aurkeztuko dute, mezaren ondoren. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo dute aurkezpen ekitaldia, eta hantxe egongo dira Iñigo Ramírez de Okariz liburuaren egilea, Mireia Unamuno alkatea eta Josune Irizar Kultura batzordeko kidea.

Antzuolako Herria Ikerketa Bekaren laugarren emaitza dugu liburu hori. Bertan, 1900etik 1960ra arteko herriko ohitura eta pentsaerak aztertu ditu Ramírezek.

Aurkezpenarekin lotuta, bestalde, baserritarren jantzien erakusketa egongo da datozen bi aste bukaeretan Olaran etxean. /A.I.



ENEKO AZKARATE

**Iñigo Ramírez de Okariz, domekan aurkeztuko duen liburuarekin.**

OÑATI

## Bidebarrietako hamabi garaje zozketatuko ditu Udalak

Udalak Bidebarrietako 12 garaje salduko ditu, zozketa bitartez. Garajeok 15 eta 41 metro koadro bitartekoak dira; merkeenak 15.885 euro balioko du, eta garestienak, 34.756. Merkatuko prezioekin alderatuz, merkeagoak dira.

Interesatuek otsailaren 26a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Zozketan parte hartzeko, berriz, beharrezkoa izango da 2002ko azaroaren 28a baino lehen Oñatin erroldatuta egotea. Bidebarrieta inguruan bizi direnek lehentasuna izango dute /A.I.

ARETXABALETA

## Korrikako ekintzak antolatzeko batzordea osatuko dute astelehenean

Apirilaren 4an hasiko da Korrika 13. Hori dela eta, Aretxabaletan Korrikaren inguruan sortzen diren ekitaldiak antolatzeko batzordea osatu gura dute. Herriko elkarteei bidali diete dagoeneko batzordean parte hartzeko gonbidapena, baina jakin ezazue gura duten guztiek izango dutela batzorde horretan lan egiteko aukera. Batzordeko kideek ibilbidea eta Korrika Kulturaleko ekitaldiak antolatuko dituzte, besteak beste. Batzarra astelehenean egingo dute, hilaren 24an, Loramendi elkartearen egoitzan, 19:30ean. /A.L.

LEINTZ GATZAGA

## Toki Eder elkartea konpontzeko lanak egiten hasi dira asteon

Urtarrilaren 11n suak eragindakoak konpontzen hasi dira aste honetan. Arotzak astebete inguru beharko dute bigak garbitu, lixatu eta zorua botatzeko. Horren ondoren, argiketariak, eskaiolistak eta pintoreak hasiko dira lanean. Hala, gauzak behar bezala joanez gero, bizpahiru astean Toki Eder elkarteko lanak amaituta egongo dira, Udalaren iritziz. 36.000 euroko aurrekontua dute lanok. Bestetik, elkarteko batzordeak lan batzuk egin gura ditu elkartean, baina oraingoz ez du ezer adostu Udalarekin. /A.G.

Zaintza premia dutenei laguntzeko erretiratu boluntarioz osatutako Nagusilan elkarteak aurkezpena egin du oraingo astean Debagoienean. Orain dela zortzi urte sortu zuten elkartea. Juan Mari Garitano (73 urte) elgoibartarra da presidentea, bai eta sortzaileetako bat ere. Hark egin du aurkezpena gurean, eta harekin egin dugu berba.

ENEKO AZKARATE



IKER BARANDIARAN

# *Juan Mari Garitano*

NAGUSILAN ELKARTEKO PRESIDENTEA

## "Bakardadearekin apurtu nahi dugu, bizipoza eragin, tristura uxatu..., eta irribarrea sorrarazi"

ZAHARREN EGOITZETAN

**"Tristura sortzen du egoitza batera joan eta mahai baten inguruan dauden bospasei pertsonak elkarri hitzik ere ez egiten ikusteak"**

GERO ETA GEHIAGO

**"Batez ere, Gipuzkoan, baina Bizkaian eta Araban ere egiten dugu lan. 560 bazkide gara gaur egun eta bost urte barru 4.000 izatea da helburua"**

**Zer da Nagusilan?**

Nagusilan elkarte bat da, adinagatik lanari utzitakoez eta erretiratu arruntez osatutakoa. Badira banaka batzuk, gazteagoak, oraindik erretiratu bakoak, baina gehienak zaharrak gara. Batik bat, bakardadean bizi diren zaharrei laguntasuna eskaintzen diegu, bai zaharren egoitzetan baita etxeetan ere. Haiekin berba egin, kalera irteten lagundu, udaletan edo beste erakunde batzuetan gestioren bat egin behar baldin badute lagundu… Horrelakoak egiten ditugu. Bakardadearekin apurtu nahi dugu, bizipoza eragin, tristura uxatu…, eta irribarrea sorrarazi.

**Zaharrak bakarrik zaintzen dituzue?**

Batik bat, zaharrak, baina ezintasunak dituztenak, elbarrituak-eta, ere bai. Orain, bestalde, epaileak erabakita gurasoengandik aparte bizi diren umeekin lanean hasteko asmoa daukagu, aitajauntzako edo amandretzako moduan. Ardura hori har dezagula nahi du Gipuzkoako Diputazioak.

**Egoitzetan-eta beste ekimenik antolatzen dituzue?**

Bai, aldiko behin, elkarrizketak eta berbaldiak antolatzen ditugu. Horrekin lortu nahi duguna da egoitzetan bizi direnek euren artean harremanak izan ditzatela, elkarrekin berba egin dezatela, eztabaida dezatela… Izan ere, tristura sortzen du egoitza batera joan eta mahai baten inguruan dauden bospasei lagunak elkarri hitzik ere ez egiten ikusteak. Orduan, boluntarioak, astean behin-edo, aurretik izendatutako orduan berbaldia egiten du eta, esan dudanez, eztabaidak sortzen ahalegintzen da: gazte denborako eta gaur egungo jaien arteko ezberdintasunak, guraso eta seme-alaben arteko hartu-emanak zelan aldatu diren…. Holako kontuak izaten dituzte mintzagai. Eta, denari kolore apur bat ematе aldera, gure gazte denborako musikarekin hasi eta amaitzen dute saioa.

**Hori guztia Donostian eta inguruetan ala probintzia guztian barrena?**

Orain, Donostia aldean gabiltza, gehienbat, baina Gipuzkoa osora zabaldu nahi dugu gure lan jarduna. Urtebetean ez dugu lortuko, baina hiruzpalau urtean bai.

**Gaur egunean, zenbat kidek osatzen duzue Nagusilan?**

Gipuzkoan 460 inguru izango gara. Orain, bultzada eman nahi diogu elkarteari, eta, Gipuzkoa osoan zabaltzearekin batera, bazkide berriak sortu. Esan behar dut gure elkarteko bazkideek ez dutela kuotarik ordaintzen. Boluntario lanak egiteko borondatea duenari kuota ipintzen badiogu, uxatu egingo dugu. Horregatik, ez dugu bazkide kuotarik. Aisialdiko ordu batzuk beste batzuei laguntzen ematen dugu, eta nahikoa dela uste dugu.

**Gipuzkoan bakarrik zabiltzate lanean?**

Batez ere, Gipuzkoan, baina baita Bizkaian eta Araban ere. Bilbon, Barakaldon, Bermeon eta Gasteizen osatu ditugu taldeak. Esan dudan moduan, 560 bazkide gara gaur egun eta bost urte barru 4.000 izatea da helburua. Ez da erraza izango, baina ahaleginduko gara.

**Gure ibarrean orain bultzatu nahi duzue taldea, ezta?**

Bai, hala da. Orain arte ez dugu kanpaina berezirik egin boluntarioak lortzeko. Badira banaka batzuk arrasatearrak, oñatiarrak…, elkarteko kide direnak, baina oso gutxi. Horregatik egon gara oraingo astean Arrasaten, Debagoienean ere Nagusilan bultzatzeko. Gauzak astiro eta ondo egin nahi ditugu. Izan ere, Debabarrenean bazkide dezente ditugu eta Debagoienean ere horrenbeste izan nahi ditugu, inguru horretan elkartasunerako giro berezia dago-eta.

**Batik bat, zerk animatzen zaituzte erretiratuok Nagusilanen parte hartzera?**

Asko eta asko gara giza laguntzaile moduan ibiltzeko gogoa izaten dugunak. Arazoa, baina, astirik eza da. Behin erretiroa hartutakoan, ordea, denbora luzeagoa izaten dugu, eta geure buruari galdetzen diogu: "Zer egin dezaket nik?". Bada, irtenbide bat izan daiteke boluntario lanetan ibiltzea. Eta, zergatik Nagusilan? Bueno, uste dut izen bat egitea lortu dugula zortzi urteotan: jendeak ezagutzen gaitu, badaki zertan dihardugun, egoitzetako eta udaletako langileek badute gure jardunaren berri…; orduan, lana borondate onez eta apaltasun osoz egiten dugula badaki jendeak… Hortaz, uste dut gizarteari eta, batez ere, premia handiagoa dutenei zerbitzua eskaintzeko modua dela gurekin jardutea.

**Erakunde publikoek ere aitortu dizuete egiten duzuen lana, ezta?**

Bai. Joan den abenduan, Gizartekintzak diploma bat eman zigun eta Jaurlaritzak ere balio publikoko ziurtagiria eman digu. Horrek erakusten du bide onetik gabiltzala eta jendeak begi onez ikusten gaituela. Apurka-apurka gero eta erraztasun handiagoak ditu jendeak guganа etortzeko. Besoak zabalik gaude zain.

**Eta dirulaguntzarik jasotzen duzue erakundeetatik?**

Bai. Gipuzkoako Diputazioak hasieratik lagundu digu eta, bestalde, udal batzuekin ere hitzarmena sinatuta daukagu, gure jarduna diruz laguntzeko. Jaurlaritzak, bestalde, aurten eman digu lehenengo aldiz: batik bat, aseguruetan ordaintzen dugunari aurre egiteko. Gero, aurrezki kutxek ere ematen digute zer edo zer. Edozelan ere, gu ez gara gastu handikoak, Arantzazuko fraideen antzera bizi gara gu. (Barreak)

**Gizarte ongizate arloan lanean diharduten profesionalek ere begi onez ikusten zaituztete ala errezeloak izan ohi dituzte zuekiko?**

Hasieran, batzuek begi txarrekin ikusten gintuzten. Esaterako, sindikatuetakoek-eta esaten ziguten ea ez gindoazen langileen ogia kentzera…; baina egun dagoeneko badakite ze lan egiten dugun eta badakite zaharrei laguntzeko gaudela eta ez inori konpetentzia egiteko. Hortaz, ez dugu arazorik ospitaletako, egoitzetako edo udaletako profesionalekin, ezta sindikatuetakoekin ere. Haien eskutik goaz, gizarte laguntzaileekin batera. Ez gaude inori konpetentzia egiteko, laguntzeko baizik.

**Nagusilaneko boluntariook herritik gertu egiten duzue lan?**

Bai, jeneralean nor bere herritik ez da mugitzen. Badira Zarauztik edo Errenteriatik Donostiara joaten direnak, baina gutxi dira.

**Boluntarioon eta zaintzen dituzuenen artean adiskidetasun berezia sortuko da, ezta?**

Bai, horrela da. Batzuetan, bizpahiru urte elkarrekin jardun ostean, dagoeneko lagun eginda, haren heriotza datorrenean, familiako baten heriotza moduan hartzen dugu. Nahitaez gertatzen da hori, baina ahalegintzen gara psikologia aldetik gure boluntarioak prestatzen.

**Zuen zerbitzua behar duenak zer egin behar du?**

Jeneralean, gure laguntasunaren premian daudenak udalen bidez jartzen dira harremanetan gurekin. Ongizate zerbitzuetatik edo, behin edo behin, Caritastik etortzen dira, batik bat, guregana.

**Zaintzen dituzuen zaharrek eskertuko dizuete egiten duzuen ahalegina.**

Bai, bai, bai, pozik daude egiten dugun lanarekin. Guretako hori oso garrantzitsua da, horixe da gure soldata. Jakina, noizean behin petralen bat-edo agertzen da. (Barreak)

## Zabalik



MARKOS BALENTZIAGA

### Arriskutsua

**Donostiako Kursaal dotorian, joan dan astegoienian, pentsakizun sakonetan ibilli da *¡Basta ya!*-ren inguruan azterketari kuadrilla bat.**

**Gogoeta potolo samarretan jardun bihar izan dabe, ze etsi-etsixan euskal nazionalismuak Europa bera be arriskuan ipinten dabela ikusi dabe.**

**Baten batek gogojardunok Kursaalian barik sagardotegiren batian-edo egingo zittuztela pentsatuko dau akaso; baña ez: Savaterren, Vargas Llosaren, Bernard-Henry Lévy-ren, Martínez Gorriaranen eta enparauen argittasun naturalak Groseko hondartzako fuelaren beltza be makaldu egin bihar izan zeban eta!**

**Joan dan asteko eguenera arte euskal nazionalismua ahuntzaren gaberdiko eztula baño ez dala esan eta esan jardun doskue eztarrixak urratu biharrian...; eta orain, ostera, Europarendako arrisku bihurtuta! Makalekuak geu!**

**Gu Europarendako arrisku bihurtuta ikuste hori, horraittio, iñorena izatekotan, nazionalismo modu erretxinduren baten —españolarena ete?— begirada gaiztuaren ondorio da.**

**Kursaalian batutakuek euki ete dabe interes zipitzik, esate baterako, Naparruako Gobernuak euskal munduaren kontra egiten diharduan kirtenkeixa-errezkadiaren berri txikixena izateko? Naparrua? Hori ez da Euskadi! erantzungo dabe, jakina.**

**Bistan da Europa zorigaiztokoak milla katramilla petral-petralak dittuana, baña daben arriskurik haundixena gu garela esatia, gauzak bere onetik ateratzia besterik ez da.**

**Entzundakuak entzunda, joan dan astegoienian, Kursaalian interesgune bakarra Martin Berasategiren erretaurantian baiño izan ez zalakuan nago ni.**

## Gutunak

### Ni ere Aita Menniren kontra

Aurreko astean, tarte honetan, Doltza Gonzálezek sinatutako lerroekin guztiz ados nago. Doltza Gonzálezen hitzetan, Aita Menniko gaixoen egoera ez da behar bezain egokia. Noski ez dela, eta ez da inoiz izango arduradunek berdin jokatzen badute. Baina nik arazo horri, ikuspegi berri bat gaineratu nahi nioke.

Gauzak horrela, ene uste apalean, langileek beraien egonezina gaixoengan islatzen dute. Aita Menniko langile arrunt batek hilero bost egunez jai edukitzen du, asko jota, horrek dakarren guztiarekin.

Gainera, argi dago, mobbing-a ere kasu honetan aplikatu daitekeela. Batzuetan langileak Estokolmo-ren sindromearekin daudela dirudi. Langile guztiak isiltasun konpromisoa dute. Ez dago inon idatzita, hori bai, arduradunek entzun nahi ez dutena esanez gero, akabo. Beraz, "ikusi, entzun eta isildu " da beraien lema, langile berak bere iritzia esateko eskubidea zapalduz.

Laburtuz, langileak behar bezala zainduz gero, beraien errendimendua eta lanarekiko jarrera askoz positiboagoa liteke. Hori da, hain zuzen, Aita Mennin gertatzen ez dena. Horregatik, aspektu honetan aldaketa nabariak gertatu behar dira. Arduradunek fitxa mugitzeko ordua heldu dela uste dut.

XABIER ZUBIETA (SINDIKALISTA OHIA)
Bergara

### Aita Menniri egindako kritikei erantzuna

Azken GOIENKARIAn, otsailaren 14koan hain zuzen ere, *Iritzia* atalean, ondorengoa irakurri genuen: “Arrasateko Aita Menni ospitaleari kritika”. Ba, lehenengo eta behin, argi eta garbi zera adierazi nahi dugu Doltza Gonzálezek idatzitako gutunaren gainean: ez gatoz bat hor diozunaz. Hona hemen gure iritzien nondik norakoak:

Zuk diozunez, “ongi dauden gaixoak”, hobeki esan ez hain ongi daudenak —ongi baleude ez lirateke egongo ospitalean— egongela baten egoten dira telebista ikusten, eta bertan izaten da arduradunen bat inork ezer behar balu hari kasu egiteko; eta guztiak “trankil” egonez gero, hark ere —zaintzaileak, noski— telebistari begiratuko dio, bai horixe!

Guztiz ezinduak, oso gutxi —bi edo hiru goia jota ere—, zarataka eta egon ezinik daudenean besteengandik aparte egon behar dute, eta alboko gela txikiago baten egoten dira. Baina ez, “ia gordeta”. Gordeta egongo balira, zuk zeuk ere ez zenituen ikusiko, ezta?

Eta “ezinduok”, diozunez, bata guztiz “zikin”… Ez dakigu noiz edo zein momentutan egon zinen zu han, baina guk ez dugu inor ikusi inoiz “zikin”; zikinduta bai, baina berehala garbitzekotan. Horretan Aita Menniko langileei “Bikain” jarriko genieke, eta ospitale horretan goiz eta arratsalde ibili izan gara atzera eta aurrera.

Lurrera jaisteko zorian eta abar… litekeena da, eta gainera ez da bat ere harritzekoa. Nor ez da jausi nonbait? Baina, tira, bai, guztiz ezindua baldin bada errez gerta liteke egoera horretan albora-edo erortzea, eta lagundu egin beharko litzaioke.

Dena den, guk hiru hilabete egin ditugu Aita Mennira atzera eta aurrera gure arteko bat hantxe eduki dugulako. Eta ezin dugu onartu lehen aipaturiko kritika hori. Gure ustea besterik da. Guztiz bestelakoa, hain zuzen ere. Ongi bai ongi zaintzen dituzte, edo zituzten, behintzat, ospitale horretan bertako gaixoak.

Hona hemen gure iritzia eta gure esker ona.

JOXE MARI IRAZOLA ETA
SERAPI ARANTZABAL
Arrasate

### Ados

Aurreko asteko GOIENKARIAn Aita Menni ospitaleari buruzko gutun bat irakurri nuen. Bakarrik esan nahi dut oso ongi idatzia zegoela eta arrazoizkoa zela. Hori da horrelako leku guztietan gertatzen dena. Denok dakigu, baina inork ez du onartu nahi. Horregatik, nik pertsona hori zoriondu nahi nuke jendeari begiak zabaltzeagatik.

Horretaz gain, posible da orain arduradunen baten erantzun negatiboa jasotzea. Bueno, sikiera gaia jorratzea lortu da. Ez da gutxi.

NEREA ARANTZIBAR
Elgoibar

### Herriak ez du gerra egiten

Joan zen zapatua, 2003ko otsailaren 15a, gizakiarendako egun historikoa kontsidera genezake. Kultura, erlijio eta arraza ezberdineko milioika pertsona, ehunka hiritan planeta osoan barrena, kalera irten ginen, mezu bakarra aldarrikatzeko: “Gerrarik ez, bakea bai”.

Albistea, baina, ez dago mezuan. Izan ere, eta historia osoan zehar, herriak ez du sekula gerrarik nahi izan. Ez gerra hau, ezta beste edozein gerra ere. Berritasuna da, planeta osoko hiritarrek, aldi berean, munduko hiri nagusietako kaleak hartu zituztela, eta botere absolutuari aurrea hartu ziotela, aginteari nahikoa dela esateko. Nahikoa da herriaz baliatu, herria engainatu eta herrien interesak aitzakia bezala erabiltzea, gerrak asmatzeko. Gerrek herriak sufritzeko eta “jauntxoek” beren aberastasunari eta botereari eusteko balio dute.

Hemengo amak, umeak, okinak, maisuak, sendagileak… ez du sekula Bagdad, Kabul, Grozni, Mostar edo beste edozein hiriko bere homologoarekin ezer aurka izan. Herriko benetako etsaiak beti izan dira munduko aberats eta agintariak. Eta hori harrigarria da, zeren eta haiek babestu eta zaindu beharko lukete herria, baina, armak, gorrotoa eta boterea asmatu eta fabrikatzen dituzte.

JON SUINAGA
Bergara

#### Azalpena

Joan den asteko GOIENKARIAko *Asteko gaia* —begi bistan dauzkagun udal hauteskundeen gainekoa— irakurri ondoren, inori zalantzarik sortu bazitzaion, zera argitu nahi dugu: aste hauetan herriz herri aurkezten ari diren herri plataformak ez ditu Batasunak sortu, “ezkertiar eta abertzale herritar multzo zabalak” baizik, eta ez dira hauteskundeei begira sortu. Horrela adieraztea eskatu digute plataformen bultzatzaileek, eta horrela argituta geratu da.

GOIENKARIA

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## *Eztabaida*

Adituek diotenez, luze joko du *Prestige* petroliontziak eragindako hondamenak. Galiziako kostaldea izan da kaltetuena, baina Kantauriko hondartza eta itsaslabarrak eta Landetako hareatzak ere orbanez bete dira. Kontu honetan izandako jarreragatik eta hartutako neurri okerrengatik kritika ugari egin dizkiote Espainiako gobernuari. Eusko Jaurlaritza, berriz, zuzen ibili dela aitortu dute Frantzian. Hemen, ordea, ahots kritikoak ere entzun ditugu, erakunde ekologisten ahotik, batik bat.

# ‘Prestige’-k egindako hondamenaren inguruan Jaurlaritzak egoki dihardu?

## *‘Prestige’-ren euskal esperientzia*



AMATIÑO
Kazetaria

*Prestige* petroliontzia azaroaren 19an hondoratu zen. Astebete geroago, hilaren 26an, haren jarioen jarraipena egiteko euskal erakunde arteko batzordea sortu zen, arrantza, osasun publiko, kontsumo, larrialdi, segurtasun, ingurumen, portu, meteorologia, ozeanografia eta komunikazio-arduradunak tarteko, lehendakariordetzaren ardurapean. Geroztik, behar hainbat aldiz bildu da eta, astegunez zein asteburuz, jakineko lan-estrategiari ekin eta kudeatu.

Hasieratik indarrean jarritako irizpideak zazpi izan dira: aurreikuspena (ekimena hartu, inoren zain geratzeke); erantzukizuna (larrialdiaz jabetu); erabateko plangintza (unean unekoa zein ikuspegi orokorra); elkarkidetza (gainerako gobernu eta erakundeekin harremanetan); informazio gardena (sarri, argi eta garbi); kontu-eskakizunak (estatu nahiz nazioarteko auzietan euskal interesak defendituz) eta etorkizun-kezka (luze iraun dezakeelakoan). Horrez gainera, aldez aurretiko teoria guztien gainetik, eguneroko praktika: euskal arrantzaleen lan eskerga, beraiek jaso baitute itsasoan, Galiziakoek baino bi bider gehiago eta Kantabriakoek baino bost aldiz gehiago.

Ehun egun geroago, datu objektiboek frogatzen dute estrategiaren onura. Laburtu beharraren beharrez bi datu baino ez, guztiz esanguratsuak: Galiziatik Bretrainiara bitartean bildutako guztiaren %60 euskal itsasontziek jaso dute eta lehorrera heldu denaren %3 baino ez da Bizkai eta Gipuzkoako itsasbazterreraino iritsi.

Besteak beste, hiru kritika nagusi izan dira: galipotak jotako hegaztiak ez kontuan hartzea, borondatezko eskulanari aukerarik ez ematea eta haitz zein labarrak ez berehalakoan garbitzea. Lehenengoa zentzuzkoa zen eta konpondu zen. Bigarrenaz, ahal izanez gero profesionalez baliatzea jo izan da egokitzat eta, hirugarrenaz, berriz, adituei egin zaie jaramon. Erabaki eztabaidagarriak, behar bada, baina erabakiak hartzea erantzukizuna duenari dagokio eta ez du balio teknikarien ezagutza komeni denean bakarrik aldarrikatzea.

**“Galiziatik Bretainiara bitartean bildutako guztiaren %60 euskal itsasontziek jaso dute”**

## *Argiak eta itzal beltz luzea Jaurlaritzaren jokabidean*



JABI ZABALA
Kazetaria

Jaurlaritzak egoki jardun du arrantzaleen lana koordinatuz, baxurakoekin akordioak lortuz, tresneriaz hornituz eta hondakinen tratamendu egokia bilatuz. Itzala ere badago, hala ere, Lakuakoen jardueran. Itzal luze eta beltz horrek estaltzen ditu egun gure kostaldeko zati handi bat. Heldu zenetik ez du inork garbitu eta badirudi administrazioak ez duela garbitzeko usterik.

Abenduan, lehenengo orbanak heldu bezain laster boluntarioak abian jartzeko eta koordinatzeko eskatu zitzaion Jaurlaritzari elkarte ekologista eta naturalisten aldetik. Hark, ezetz, lehorreko zeregin hori profesional gutxi batzuekin egingo zuela erantzun zuen.

Orduz gero, marea beltzaren benetako neurria bertatik bertara ezagutu dugunok berehala konturatu gara horrekin ez zela nahikoa izango. Beste gauza batez ere jabetu gara: soilik hondartzak garbitu dituztela, gure kostaldearen zatirik ikusgarriena, eskuragarriena eta garbitzeko errazena. Kostaldearen %90 osatzen duten haitz eta itsaslabarrak ez dituzte ukitu eta ez dituzte aipatu ere egin ekologistek ardura hori gogorarazi dieten arte.

Egoeraz kezkatuta, sektorerik kontzientziatuenek itsaslabarren garbiketari ekiteko galdetu diote Lakuari, lekuak eta datak zehazteko. Baina ekiteko asmo ezaren aurrean, orain arte harrizko gonbidatuak izan diren ornitologoek, surflariek eta ekologistek protesta-garbiketa deitu zuten Sopela eta Zumaia arteko hainbat lekutan, iragan igandean. Goiz batean, 3,6 tona galipot bildu genuen.

Ez da egia orain dabiltzan langileekin kostaldea garbi daitekeenik. Ezta Intxaurraga sailburuak esandakoa, haitzetan inpaktua hamar egun lehenagokoa izan zela. Astakeria da zuhurtzia dela eta, haitzetako fuela garbitu barik itxarotea hobe dela esatea.

Erraza du Lakuak Espainiako gobernuaren portaera lotsagarriarekiko konparatzetik bere burua gorestea. Argudio ustela da hori, baina ETBren laguntzarekin hondartzak=kostaldea identifikazio faltsua zabaldu dute, dena kontrolpean dagoela, gure kostaldea benetan belztuta dagoen bitartean.

**“Kostaldearen %90 osatzen duten haitz eta itsaslabarrak ez dituzte ukitu ezta aipatu ere egin”**

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

*Nolakoa beharko luke izan 20 urte barruko Debagoienak?*

## *Gora eta Behera*

### KALEAK JENDEZ GAINEZKA, GERRAREN KONTRA

Joan den zapatuan ,otsailak 15, Europako hirietan jendea bildu zen gerraren kontra azaltzeko asmoarekin. Ikusi dugunarekin, badirudi jendea ez datorrela bat bere agintari politikoekin.

### GERO ETA ORBAN GEHIAGO GURE HONDARTZETAN

Orain dela 100 egun Galizian gertatu zena gure hondartzetan jasotzen ari gara eta gure arrantzaleek egunero arrainak harrapatu beharrean *txapapotea* hartzen dute. Horrez gain, ez dakigu *Prestige*-ren isuriak noiz bukatuko diren. Dirudienez arazo hau ez da epe laburrean bukatuko.



MAITE MUÑOA
Aramaioko ludotekako arduraduna

## *Koplak*

### *Txapapotie*

Txapapotie dala eta eztala
itxasuen dau negarra,
bateron batzuk ez al daukie
eskarmentuen biherra.

Agintarixen jokabidie
lotsagarrixe benetan,
jentuza horrentzat lekuik ez al dau
Españako kartzeletan?

Galizia dana negar miñetan
eta Fraga zaharra kazan,
askoz hoba zan juen zan lekuen
betiko gelditu bazan.

Itsas ertzeko harei ta harri
txapapotiaz jositte,
harrixek pe negar egin leike
hori hola ikusitte.

Arrain ta txori ta gaiñetiko
illune etorkizune,
izenbako batzuk loittu daue-ta
itxasuen osasune.

Arrantzaliek fuerte lanien
nahiz ta ez egon trankillek,
nere animoik beruena hartu
eta aurrera mutillek.

IÑAKI PLAZAOLA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA**
Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA**
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal
**ADMINISTRAZIOA**
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK**
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)
**PUBLIZITATEA**
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martínez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martín, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA**
Iban Arantzabal
**TESTUEN ZUZENKETA**
Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA**
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA**
Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA**
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

*Podiuma*

# Joseba López |EUSKADIKO MOTOKROS TXAPELDUNA|

**Dagoeneko denboraldia gertatzeari ekin dio Joseba Lópezek. Bergararra dugu Euskadiko txapelduna, eta aurten ere onenen artean egotea du helburu. Arautegian aldaketa bat egin dute: bi eta lau aldiko motorrak batera lehiatuko dira. Horrek gauzak zailduko dizkiola esan digu.**

**Azken urteotan zuk irabazi izan duzu Euskadiko Txapelketa. Iazkoan ere ez zenuen hutsik egin, eta txapela defendatu beharko duzu aurten.**

Gustura nago azken urteotan egindako lasterketekin. Senior mailan, 1999an irabazi nuen Euskadiko Txapelketa. Gero, lesio larria izan nuen. Lesioa gainditu ondoren, 2001ean eta 2002an ere Euskadiko Txapelketa irabazi dut. Azken urteko emaitzak onak izan dira, eta gustura nago. Aurten ere txapelketa irabazten ahaleginduko naiz. Gazteak indartsu datoz, eta ikusi egin behar noraino irits naitekeen.

**Euskadiko Txapelketako probak ezberdinak izaten dira. Zeintzuk irabazi dituzu?**

Guztira, sei lasterketa inguru izaten dira. Gasteizkoa, San Roman de San Millangoa eta Arronakoa irabazi nituen. Horietan lortutako puntuei gainerako probetan lortutako puntuak gehituta txapelketa irabazteko bidea egin dut, eta pozik nago.

**Aurtengo denboraldian, bi eta lau aldiko motorrak batera lehiatzean, zailtasun gehiago izango dituzu.**

Daukadan motorra bi aldikoa da eta ez du oraindik urtea bete. Aurtengo denboraldia trantsizio denboraldia dela esan daiteke, lau aldiko motordunak gure probetan parte hartuko dutelako. Oraingoz ez daukat motorra aldatzeko asmorik, eta ikusi egin behar motor indartsuagoen aurka zelan konpontzen naizen. Lau aldiko motorrek hasiera hobea dute, eta gero atzetik ibili behar izaten duzu aurre hartzeko.

**Urtero moduan entrenatzeko arazoekin jarraituko duzue. Ala?**

Hemen daukagun arazoa zirkuitu falta da. Urteroko kontua da, eta gauzak ez dira batere aldatu. Entrenatzeko inguruan daukagun zirkuitu onenetakoa Haron dago. Hara joan eta entrenamendua egitea diru gastu handia da eta denbora luzea eskatzen du. Horregatik, basoan entrenatzen gara normalean. Gimnasioan ere ibiltzen gara, motokrosa jendeak uste duen baino gogorragoa da-eta.

**Gastuei zelan egiten diezu aurre?**

Ni Azpeitiko Leandro lantegikoekin ibiltzen naiz. Motorra eurek gertatzen didate. Arrasate Moto Elkartekoek ere laguntzen didate lizentzia egiteko orduan.

**Etorkizunari begira zein asmo duzu?**

Gazteak indartsu datoz eta arautegian izandako aldaketekin, irabaztea gero eta zailagoa izango da. Ikusi egin behar lehenengo lasterketak zelan datozen.

OXEL EROSTARBE



O.E.

Joseba López bergararrak urtetan dihardu motokrosean.

**"Gustura nago azken urteotan egindako lasterketekin. Senior mailan, 1999an, 2001ean eta 2002an irabazi dut Euskadiko Txapelketa"**

**"Aurtengo denboraldia trantsizio denboraldia dela esan daiteke, lau aldiko motorrak eta bi aldikoak batera lehiatuko gara-eta"**

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Bergara-Berio: 5-1 / Aretxabaleta-Aloña Mendi: 2-0 / Urola-Mondra: 0-1

**ASTEKO JOKALARI ONENAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Jon Altzola | (Bergara) | 3 puntu |
| **2.** | Illart Etxeberria | (Mondra) | 2 puntu |
| **3.** | Jon Sánchez | (Aretxabaleta) | 1 puntu |



1 **Jon Altzola** Bergara



2 **Illart Etxeberria** Mondra



3 **Jon Sánchez** Bergara

**Jon Altzola**
Duda barik, Jon izan zen onena Agorrosinen.

**Illart Etxeberria**
Erdialdean lan ona eta, gainera, gola.

**Jon Sánchez**
Azken jardunaldietan arriskua darama hanketan.

**SAILKAPEN OROKORRA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Jon Altzola | (Bergara) | 9 puntu |
| **2.** | Eric García | (Aretxabaleta) | 9 puntu |
| **3.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 9 puntu |
| **4.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 9 puntu |
| **5.** | Alberto Matalobos | (Aretxabaleta) | 6 puntu |



1 **Jon Altzola** Bergara



2 **Eric García** Aretxabaleta



3 **Jon Muruamendiaraz** Mondra



4 **Gorka San Vicente** Bergara



5 **Alberto Matalobos** Aretxabaleta

**Goienkaria**

*Kirolaburrak*



### TRIALSINA/ARETXABALETA

Domekan, Euskadiko Trialsin Txapelketa jokatuko da Aretxabaletan. Porrukotxan eta hango inguruetan jarriko dituzte parte-hartzaileek bizikletarekin gainditu beharreko oztopo-guneak. Txapelketa 10:30ean hasiko da. Hainbat mailatako txirrindulariek hartuko dute parte. 12 urtetik beherakoen probarekin hasiko da txapelketa. Horren ondoren, alebinak, infantilak, emakumezkoak eta gazteak ibiliko dira lehian.




### JONATHAN PÉREZ/ARRASATE

Aurreko asteburuan Sevillan jokatu zen Espainiako Promesen Txapelketan ezin izan zuen bere marka hobetu Jonathan Pérezek. Arrasatearrak 4,90 metroko jauzia egin zuen, eta bere marka onena berdindu zuen. Bosgarren postuan amaitu zuen txapelketa. Jonathanek ez zuen Espainiako Txapelketarako zuzenean sailkatuko lukeen bost metroko jauzia egin. Hala ere, Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukera dauka oraindik.

### FUTBOLA/MONDRA

Denboraldiko partidu garrantzitsuenetakoa jokatuko du bihar Mondrak. Izan ere, sailkapeneko aurreneko postuan dagoen Zumaiako taldearen aurka jokatuko dute Josu Zubiaren mutilek. Aurreko asteburuan Urolari 0-1 irabazi ostean, sailkapeneko lehenengo postutik bi puntura daude arrasatearrak. Bihar partidua irabaziz gero, Mondrak lidertza eskuratuko du. Partidua 16:30ean jokatuko da, Atxabalpen. Partidua irabaziz gero, mailaz igotzeko urrats garrantzitsua emango luke.

### HERRI KIROLAK/ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitateko lehenengo herri kirol txapelketa jokatuko da aurten. Txapelketak bi fase izango ditu: lehenengoa Eskoriatzako plazan jokatuko da datorren martitzenean, hilaren 25ean, 16:00etan. Txapelketan hamar laguneko taldeek hartuko dute parte eta derrigorrezkoa da partaideak MUn matrikulatua egotea. Taldeak txingak eramaten, zaku lasterketan, sokatiran, lokotx apustuan eta gizon-emakume proban lehiatuko dira. Talde onenak maiatzaren 9an Donostian jokatuko den bigarren faserako sailkatuko dira. Txapelketa irabazten duen taldearendako, 9.000 euroko saria egongo da, bidaia bat egiteko.

# Kirol materiala euskaraz sortzeko bekak

## Debarroko euskara eta kirol zerbitzuek antolatutako beken XIII. aldia

**Debarroko euskara eta kirol zerbitzuek yoga eta erlaxazioaren eta kirol alternatiboen gaineko fitxak egiteko bekak emango dituzte. Hurrengo lerroetan dituzue beken ezaugarriak eta eskabidea egiteko bideak. Otsailaren 25a da eskaerak aurkezteko azken eguna.**




GOIENKARIA

Debarroko euskara eta kirol zerbitzuek orain dela astebete aurkeztu zituzten aurten argitaratu dituzten fitxa didaktikoak.

**1. Beken ezaugarriak**

**1.1. Beken helburuak**

XIII. aldi honen helburua bi arlotako fitxa didaktikoak sortzea da: alde batetik, yogaren (40-50 fitxa) eta erlaxazioaren (5-10 fitxa) gainekoak; eta, bestetik, zenbait kirol alternatiboren gainekoak (60-70 fitxa): arku-tiroketa, mendiko bizikleta, jausgailua eta hanka-paloak.

Fitxa horiek eskola-kirolean, heziketa fisikoan, klubetan, eta gimnasioetan dabiltzan teknikari eta irakasleei zuzendu nahi dizkiegu.

**1.2. Diru-zenbatekoa.**

Beka bakoitzak 3.000 euroko ordainsaria izango du.

**1.3. Iraupena.**

Lana egiteko epea, beka esleitzen denetik hasita, lau hilabetekoa izango da.

**2. Eskabideak**

Interesatuek Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura (San Martin plaza / 20570 / Bergara) bidali beharko dituzte eskabideak, era honetan:

Gutun-azal nagusi bat bidali beharko da, azalean *Kirol materialak euskaraz sortzeko beka. (XIII. edizioa)* izenburua jarrita. Bestalde, eskaerak aurkezteko azken eguna otsailaren 25a izango da.

## KIROL ZERBITZUEN BERRIAK

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua


iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK
SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42
ARRASATE
FAGOR


e-debagoiena
ETORKIZUNA HURBILTZEKO
TE ACERCAMOS EL FUTURO
2003an, e-debagoiena
zabalduz, bultzatuz...
zure haritik
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Euskaltel
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko otsailaren 21a

Kultura eta aisialdia

Otsailaren 21etik 28ra



**JULIO UNAMUNO**

Ahotsa ipini zuen Urretxindorren abesti askotan, eta gitarra jotzaile bikaina ere bazen. Bakarlari ere jarduten zuen askotan, eta abestiak idazten zituen. "Erregistro askoko ahotsa du", diote beste kideek.

**JUAN MARI NARBAEZ**

Musika idazteko eta jotzeko grinagatik nabarmentzen zen Juan Mari taldekidea. Musika jotzeko sen naturala du, nahiz eta, beste hirurek bezala, oinarrizko musika ikasketak bakarrik egin zituen. Sen hori semeek ere jaso dute.

**GOTZON BIKUÑA**

Taldeko beste ohiko bakarlarietako bat zen Gotzon. Beste taldekideek honakoa diote: "Entzuterakoan, hotzikara ematen zigun ahots baten jabe da". Disko berrian, ahots horretaz gozatzeko aukera izango dugu.

**RAUL CALVO**

Taldeko gitarra jotzailea zen, baita abestien musika idazteko arduraduna ere. Abestea ere gustuko zuen arren, lan hori beste taldekideei uzten zien Raulek gehienetan, nahiz eta noiz edo noiz berak ere ekarpen hori egin.

# Urretxindorrak, CDan

**Musikarekiko eta euskararekiko maitasunak elkartutako lau adiskideek bat egin dute, urte askoren ondoren. Mizpirualde egoitzako kaperan grabatutako 25 abestiko diskoa eskaintzen digute. Bertan, Urretxindorren abesti guztiak daude, baita sasoi hartan grabatu barik geratu zirenak ere.**

GOIO ARANA

DISKOAK/ BERGARAKO URRETXINDORRAK TALDEAK BERE BETIKO ABESTIEN BILDUMA KALERATU DU

# Urretxindorrak, berriro elkarrekin

BERGARAKO TALDEAK LEHEN GRABATU EZIN IZAN ZITUEN BOST ABESTI SARTU DITU BILDUMA DISKOAN

LEIRE KORTABARRIA

**Bergarako Urretxindorrak, *Aitorren hizkuntz zaharra* abestia lau haizeetara hedatu zuen talde debagoiendarra, bueltan da berriro. Juan Mari, Julio, Gotzon eta Raul, orduko lau lagunek, lehengo abestiekin diskoa grabatu dute, tartean, orduan grabatu ez zituzten bost abesti.**

"Orain dela asko egiteko gogoa genuen gauza bat izan da. Elkar argitaletxeak orain dela hamaika urte atera zuen Urretxindorren abestiekin disko bat, *Kantu nostalgikoak*. Abesti horiekin, orduko beste batzuekin eta grabatu barik gelditu ziren azken batzuekin diskoa egitea erabaki genuen. Guztira, 25 abesti izango dira", diote Urretxindorrak taldeko kideek.

Diskoa Bergarako Gure Ametsa elkartean aurkeztu zuten atzo, eguena, eta Gurian, Pol-Polen, Irrintzin eta Graziarenean egongo da salgai.



GOIO ARANA

Urretxindorrak berriro elkartu dira; hori bai, eurek diotenez, "disko hau bakarrik ateratzeko".

**EUSKAL GIRO BIKAINA**

Grabatu ez ziren bost abestion gainean zera diote taldekideek: "Bi zentsurak debekatutakoak izan ziren. Ez zuten aparteko gauzarik esaten. Kontua da taldeak euskararen gaineko kontuez abesten zuela, eta hortik etorri ziren arazoak", esaten dute.

Urretxindorrek kontzertu asko eskaini zituzten urte haietan –"astero izaten zen emanaldiren bat, batez ere, Bizkaian"–, eta sortzen zen euskal giroa gogoratzen dute: "Hori dela eta, Ezkerraldean *Desde Santurce a Bilbao*… euskaraz abestea bururatu zitzaigun", diote, irriz.

## Euskal 'hit-parade'-an

**Bergarako Urretxindorrak taldeak bost grabaketa egin zituen 1966tik 1972ra bitartean. Guztira, 18 abesti batzen zituzten grabaketok. Madrilera joan ziren horretarako, eta hango Cinsa diskoetxeak argitaratu zizkien diskoak. Garai haiek irribarre batekin gogoratzen dituzte Juan Marik, Juliok, Gotzonek eta Raulek: "Madrilen grabatzea gauza handia zen guretako. Egubakoitz arratsalde baten hara joan, zapatu goizean grabaketa egin, eta segituan bueltatzen ginen herrira", gogoratzen dute.**

**Disko haiek oso arrakastatsuak izan ziren Euskal Herrian: "Irratietan euskal *hit-parade* antzekoa egiten zuten, eta han, goiko postuetan izaten ginen geu, euskal musikagintzako figura handiekin", diote lau bergararrek.**















## Orkestra Sinfonikoarekin

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Benito Lertxundirekin eta Mikel Laboarekin jo izan badu, zergatik ez Bergarako Orkestra Sinfonikoak Urretxindorrekin? Galdera hori helarazi digute Bergarako laukotea atseginez gogoratzen duten hainbat herritarrek.

Egia esan, ez dira gutxi oroitzapen hori duten debagoiendarrak: "Elkarrekin ikusten gaituztenean, esaten digute: 'Zer edo zertan bazabiltzate, ezta?'. Holakoak esaten dizkigute", diote. Gazteek ere gustura entzuten dituzte euren abestiak: "Urteak joan ahala, konturatu gara Urretxindorrek hutsune bat bete zutela garai hartan euskarazko kantagintzan. Guretako denbora-pasa zenak askoz esanahi handiagoa izan zuen, eta horretaz orain konturatu gara", diote.

## Hainbaten laguntza

Urretxindorrak taldeak badu zeini eman eskerrak, eta eurek hala azpimarratu nahi dute: Txomin Amasorraini, kantu asko sortzen lagundu zielako; Ziriako Andonegi mutrikuarrari, *Aitorren hizkuntz zaharra* abestia sortu zuelako; Serafin Esnaola konposatzaileari, taldeari izena eman ziolako; Xabier Azurmendiri, euren hainbat abesti idatzi zituelako; Dionisio Olabarriari, ahotsa hezten lagundu zielako. Bestalde, atera berri den diskoan, lehen aldiz grabatzen diren abestietatik hiru Angel Maria Azurmendi Uberako abadeak idatzitakoak dira.

Horrez gain , diskoa grabatzea Ormazabal etxeari esker izan da posible: "Oso proiektu garestia zen, eta Ormazabal enpresak finantzaketa berak egitea eskaini zigun".



**ANTZERKIA/ MUSIKA, IRONIA, KOMIKOTASUNA ETA EZUSTEAK IZANGO DIRA PROTAGONISTA ETZI ELGETAN**

# Familian ikusteko antzerkia

'KK' ANTZEZLANA ELGETAN ESTREINATUKO DU MARKELIÑE ANTZERKI TALDE BIZKAITARRAK

LEIRE KORTABARRIA

**Debagoiena gustuko du Markeliñe antzerki talde bizkaitarrak. *DSO* euren aurreko lana Arrasaten eskaini zuten iaz; orain, oso bestelako antzerki lan batekin datoz, Elgetara, kasu honetan. *KK* du izena antzerki lanak, eta familia guztiarendako da aproposa.**

Etzi, domeka, eskainiko du Markeliñek *KK* antzezlana Elgetako plazan, 13:00etan. Umeek aitaamekin ikusteko pentsatuta dago. Hala ere, ez da estreinaldi ofiziala izango: "Lan berrian zelan moldatzen garen ikusi gura dugu, eta horretarako pentsatu dugu Elgetan lehenengo antzezpen hau egitea. Hobe daitezkeen aldeak zeintzuk diren ikusiko dugu horrela", dioskute Markeliñe taldeko partaideek. Antzezpen horretarako Elgeta aukeratu gura izan dute; izan ere, euren hitzetan, "oso harreman ona dugu Elgetarekin, oso gustuko dugu".



MARKELIÑE

***DSO* bere aurreko lana ere ibarrera ekarri zuen Markeliñe antzerki taldeak.**

**EZOHIKO BALDINTZAK**

Antzerki talde beteranoa izan arren, Markeliñek publiko aurreko entsegu antzeko honen beharra sumatu du. Horren zergatia da euren ohiko antzezpenen aldean desberdina dela *KK*: "Umeendako antzezlanak egin izan ditugu, baina antzokietan. Honakoa kale antzerkia da, eta kalean lan egiteak beste baldintza batzuk ipintzen ditu: ezin gara agertokiaz, argiez… baliatu", dio taldeak. "Bestalde, gure antzezlan gehienak gauez egitekoak dira, eta argiak, piroteknia… asko erabiltzen ditugu. Oraingoan, elementu horiek ere kanpoan geratuko dira", gaineratzen dute.

Elementu lagungarriak ere izango dituzte aktoreek, hala ere: "Musika erabiliko dugu; hor egongo da, adibidez, akordeoi jotzaile bat; aktore bat trikimakoetan (zankoetan) ibiliko da…", azaltzen du Markeliñek.

**HIRU PERTSONAIA**

Publiko helduari zuzendutako saioetatik familia osoarendako zuzendutako batera pasatu arren, ohiko estiloari eutsiko dio Markeliñek *KK* lanean: ironia, komikotasuna, ezusteak… izango dira nagusi Elgetako plazan.

Istorioko protagonistak elkar topo egiten duten hiru pertsonaia dira: batetik, trikimakoetan dabilen kale garbitzaile bat. Bankuak, kabinak, lurra… Edozer gauza edo pertsona izan daiteke bere garbitzeko irrikaren hartzaile; bestalde, bihotz xamurreko akordeoi jotzaile bat, musikaren bidez publikoaren eskuzabaltasuna piztu nahi duena; eta, azkenik, pertsonaia nagusia: neskatila bat, kontainer baten galduta –bertan utzita edo harrapatuta–, beste biek aurkitu eta euren ardurapean hartuko dutena.

**NIREAUKERA**



## 'ISILTASUNA APURTZEN'
## Bergarako gaztetxea

**Bergarako gaztetxekoek hango musika taldeak omentzeko konpaktu bikoitza, *Isiltasuna apurtzen*, atera dute orain dela gutxi, eta horixe gomendatu gurako nuke. Alde batetik, gaztetxe batek konpaktu bat ateratzeak meritu handia duela deritzot; bestetik, disko honetan, talde asko eta euren artean oso desberdinak, baina guztiak onak, biltzen dira. 35 talde eta abesti dira denera, eta guztiak ditut gustuko; hala ere, batzuk nabarmentzekotan, X-at, Destruccion eta Ednis taldeak nabarmenduko nituzke. Eskoriatzako gaztetxean ere badaukagu salgai *Isiltasuna apurtzen* diskoa, gura duenarendako.** /L.K.



**Joseba Gabilondo**

Eskoriatzarra, 18 urte. Bere herriko Gazte Asanbladako kidea da.

**KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA /** Narrazioa




**GORROTO HAUT**

**Giovannino Guareschi**
Alberdania
100 orrialde

Gorrotoari adarrak zorrozteko agindu zieten hamabi idazleri, eta idazle bakoitzak horixe egin du, hainbat gai jorratuta. Horrela, hamabi narrazio sortu dira liburuxka honetan.

Ezagunak dira oso bilduma honetan parte hartu duten idazleak. Gorroto kontaketa honetan daude: Javi Cillero, Unai Elorriaga, Aingeru Epaltza, Hasier Etxeberria, Aritz Gorrotxategi, Juan Kruz Igerabide, Karlos Linazasoro, Joxean Sagastizabal, Kirmen Uribe, Iban Zaldua eta Patxi Zubizarreta. Eta idazle guztien artean, neska bakarra: Arantxa Iturbe.

**LIBURUA /** Narratiba




**HAMAR MANAMENDUAK**

**Xabier Etxaniz Rojo**
142 orrialde

Xabier Etxaniz idazlea Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketaren irabazle izan zen, 2000n eta 2001ean. *Begiak itxi eta kitto* izan zen Xabier Etxanizen lana. Tituluan 10 direla esan arren, hamaika dira mandamenduak eta ipuinak. Gizartearen mugan dauden pertsonaiek harilkatzen dituzte ipuinak. Pertsonaietako bat da, esaterako, *Susi*: heldua, dibortziatua, apartamentu pribatuduna, eta hauxe dioena egunkariko iragarkian: *Goza nazazu senarrak gozatzen jakin ez zuen bezala*. Ironia apur bat eta umore beltza ez dira falta liburuan.

**DISKOA /** Rocka




**SORKUN**

**Sorkun**
Metak
12 kantu

Kashbad taldeko ahots ezagunak, baita Fermin Muguruza Dub Manifest taldean ibiliak ere, bakarkako lehen diskoa kaleratu du. Xabi Strubell (Dut), Gorka Sesma (Kashbad), Fermin Muguruza eta beste hainbat musikariekin batera egindako zirriborroetatik abiatu eta talde berri bat osatu ostean, entsegu lokalean landuriko kantuak aurkezten dizkigu estreinako lan honetan. Pop eta elektronika zipriztinez jantziriko rock disko baten aurrean gaudela esan dezakegu, Euskal Herriko ahotsik ederrenetariko bat berriro ere gozatzeko aukera emanen diguna.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko otsailaren 21a

# Otsailak 21-28

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## MATRIKULAK

### OÑATI

► **Oñatiko euskal eskola publikoan** aurrematrikula egiteko epea zabalik dago martxoaren 15era arte. Argibideetarako, deitu 943 78 07 64 (Haur eta lehen hezkuntza) edo 943 78 12 68 (Derrigorrezko bigarren hezkuntza) telefonoetara.

## ANTZERKIA

### ELORRIO

► ***Natatxa*** **umeendako antzezlana** eskainiko dute Hankatxo eta Txalo taldeek etzi, domeka, Arriola aretoan, 17:00etan.

► ***Atra bilis (cuando estemos más tranquilas)*** **antzerki lana** taularatuko du Micomicón konpainiak datorren egubakoitzean, hilaren 28an, Arriola aretoan, 22:30ean.

### ELGETA

► ***KK*** **umeendako kale antzerki lana** estreinatuko du Markeliñe taldeak etzi, herriko plazan, 13:00etan.

### ESKORIATZA

► ***4L-mentos*** **antzerki lana** jokatuko du Mò-house taldeak gaur, egubakoitza, Unibertsitateko aretoan, 22:30ean.

► **Umeendako ipuin kontaketa saioa** izango da datorren martitzenean, hilaren 25ean, udal liburutegian, 18:00etan.

► ***Txio-txioka*** **umeendako antzerki lana** jokatuko du Taun-taun txotxongilo taldeak datorren eguaztenean, hilak 26, udal liburutegian, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Felix Ayala margolariak** bere lan berrien erakusketa du zabalik Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Etzira arte ikusi ahal izango duzue, gaur, 18:00etatik 20:00etara, eta bihar eta etzi, gainera, 12:00-14:00.

### OÑATI

► **Iñaki Jauregialtzoren buztinezko eskulturen erakusketa** bisitatzeko aukera duzue Barue dekorazio dendan (Santa Marina, 4), hilaren bukaerara arte.

► **Joseba Arregi** ***Azpilleta*** preso oñatiarrak kartzelan egindako margolanen erakusketa dago Oñatiko kultura etxean, hilaren 23ra arte. Astegunetan, 18:30etik 20:30era, eta zapatu eta domekan, ordutegi horrez gain, 12:00etatik 14:00etara izango duzue ikusteko aukera.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Antzuolako ohitura zaharren gaineko** liburua aurkeztuko du Iñigo Ramirez de Okariz egileak domekan, udaletxean, mezaren ondoren.

► **Gernika Deialdiarekin bat egiten duen** herri plataforma bihar aurkeztuko dute, zapatua, herriko plazan, 13:00etan.

### ARAMAIO

► **Txirritola elkarteak antolatutako Ipuin lehiaketako** sari banaketa izango da bihar, zapatua, kultura etxean, 13:00etan.

### DEBAGOIENA

► **Gerra Zibilean desagertutako eta fusilatutako** lagunei omenaldia prestatzeko batzordearen bilera egingo dute bihar, zapatua, hilak 22, Arrasateko udaletxeko osoko bilkura aretoan, 11:00etan. Interesa duen edozein dago parte hartzera gonbidatuta.

### ELGETA

► ***Umorea euskal literaturan*** **berbaldia** egingo du Iban Zalduak eguenean, hilak 27, liburutegian, 19:30ean.

### ESKORIATZA

► **Liburutegiaren inaugurazioa** eta udalaren Internet-gunearen aurkezpena izango dira gaur, egubakoitza, San Pedron (Luis Ezeiza ikastetxeko haur hezkuntzako eraikinean), 18:30ean.

► **Udal liburutegia** zabalik izango da bihar, zapatua, 11:00etatik 13:00etara, herritarrek hango zerbitzu berriak ezagutu ditzaten.

► **Gasteizera irteera** antolatu du Amuska emakume elkarteak biharko, zapatua. Katedrala, Artium arte garaikideko museoa eta hiriko alde zaharra bisitatuko dituzte, besteak beste. Amuskako bazkideek hamar euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, hamabi.

► **Aratusteetako dantza** ikasteko aukera izango dute gura duten herritar guztiek. Horretarako, jo frontoira, datorren eguaztenean, otsailak 26, 19:00etan.

► **Eskiatzera joateko irteera** antolatu du udal gaztedia sailak, apirilaren 5erako eta 6rako, 12-30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Izena emateko azken eguna martxoaren 21a izango duzue. Horretarako, jo kultura etxera, 10:00etatik 13:00etara edo 14:00etatik 17:00etara bitartean.

### OÑATI

► **Ingurumen Astearen barne,** *Oihana Auhenka* delako ikuskizuna izango da, gaur, egubakoitza, Zubikoa kiroldegian, 22:30ean.

► ***Argentina rica, Argentina pobre*** **diaporama saioa** eskainiko du Xabier Bañuelosek martitzenean, otsailak 25, kultura etxean, 19:00etan.

► **Aratuste herrikoian,** martxoaren 1ean, dantza egiteko aukera dute oñatiar guztiek. Entseguak martitzenero, 20:00etan, eta zapaturo, 12:00etan, izango dira, Oñatz dantza taldearen egoitzan, Errekalden.

► **Asteburuetako eski irteeretarako** izena emateko aukera dago oraindik. Aloña Mendiko mendi sailak antolatzen ditu. Luz Ardiden-era joango dira martxoaren 14tik 16rako asteburuan. Izena emateko, jo Aloña Mendi tabernara martitzen edo eguaztenetan, 19:00-20:30.

## LEHIAKETAK

### DEBAGOIENA

► **Bergarako Mendekoste jaietako** kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak. Edozeinek har dezake parte, 61 x 46 zentimetroko kartelak aurkeztuz. Derrigorrezko testua honakoa izango da: *Pentekoste jaiak Bergaran. 2003.* Martxoaren 28a izango da parte hartzeko azken eguna. Bidali lanok Bergarako kultura etxera.

## MUSIKA

### BERGARA

► **Techno jaialdia** izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 00:00etan. Dave Clarke, Trampas eta Sinestesia-ren emanaldia izango da.

► **Toilet Boys eta Holy Sheep** taldeek joko dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Txartelak 12 eurotan salduko dituzte aldez aurretik, eta 15 eurotan leihatilan.

► **Aratusteetako kontzertua** izango da datorren egubakoitzean, hilaren 28an, udal pilotalekuan, 22:30ean, eta txartelak astelehenean, 24an, jarriko dituzte salgai, Lazkano zapata dendan eta kultura etxean, hiru eurotan. Kontzertuaren lehenengo zatian, udal bandak eta orkestra sinfonikoak joko dute. Bigarrenean, bi taldeek, Xamatz dantza taldearen laguntzarekin, *El señor de los anillos* filmeko soinu banda joko dute.





► KONTZERTUAK

### PETTIREN ETA TERRY LEE HALE-REN SAIO AKUSTIKOA, BERGARAN

Petti kantautore nafarrak eta Terry Lee Hale musikari estatubatuarrak (Walkabouts taldeko kide izandakoak) elkarrekin egin duten bira bukatzeko zorian dago. Edozelan ere, azken txanpa honetan, Bergarako gaztetxean eskainiko dute kontzertua. Hamar eguneko bira akustiko txikia izan da, bai Espainiako, bai eta Euskal Herriko agertokietatik ere: orain arte, Madrilen, Donostian, Iruñean, Leonen, Burgosen, Bartzelonan eta Gironan jo dute. Kontzertu akustikoak izan dira, eta bertan, Petti nafarrak eta Texasko Terry Lee Halek elkarrekin jotzerakoan argi utzi dute *roots rock* delakoak (euskaraz, sustraidun rocka) ez duela inongo mugarik.

**Non:** Bergarako gaztetxean. **Noiz:** bihar, zapatua. **Ordua:** 22:00etan.

Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
**BERGARA**



## ‘HIMALAIA’ LIBURUAREN AURKEZPENA

Eskoriatzako liburutegi berria zabaldu dutela-eta, hamaika ekintza antolatu dituzte. Astelehenean, hilaren 24an, Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarrak *Himalaia* bere liburua aurkeztuko du bertan, 18:30ean. Segidan, diapositiba emanaldia egingo dute.

► **The Rezillos** eta beste talde baten emanaldia izango da datorren egubakoitzean, otsailak 28, Jam aretoan, 22:00etan.

### ESKORIATZA

► **Betagarri taldeak** disko berria aurkeztuko du bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

## JAIAK

### ARRASATE

► **Andaluzia Eguna** ospatuko du Al-Andalus kultura elkarteak datorren egubakoitzean, hilak 28. 19:00etan, taldeko abesbatzaren emanaldia izango da, eta segidan, luntxa. 23:00etan, Gau Flamenkoa izango da, euren egoitzan.

### ESKORIATZA

► **Urdelardero Eguna** ospatuko dute herritarrek eguenean, hilak 27. Goizean, ikastetxe guztietako umeek kalejira egingo dute. 12:00etan, txistorra jana izango dute, herriko plazan; 17:00etan, umeendako jaialdia izango da, hau ere, herriko plazan.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Haur Hezkuntzakoen aitona-amonendako** ikastaroa antolatu du Arizmendi Ikastolak otsailaren 27rako, eguena, Ferixalekuan, 15:00etan.

### DEBAGOIENA

► **ICTEk, Hirugarren Adineko Komunitate Institutuak,** bi ikastaro antolatu ditu. Bata, nagusien zaintzaileek laneko estresa kontrolatzeko ikastaroa; hori martxoaren 3tik 7ra izango da. Bigarrena, istripuak saihesten ikasteko eta larrialdietan zer egin jakiteko ikastaroa, apirilaren 7tik 11ra izango da. Biak ICTEk Arrasaten duen egoitzan emango dira (Nafarroa etorbidea), 15-18 ordukoak izango dira eta hamar parte hartzaile onartuko dituzte bakoitzeko. Izena emateko, deitu 943 77 16 99ra edo 943 77 17 15era.

### EUSKAL HERRIA

► **Tokian tokiko energia agentzien gaineko** ikastaroa antolatu dute Eguzki talde ekologistak eta Eusko Jaurlaritzak. Ikastaroa Legution izango da, bihar, zapatua. Hainbat adituren hitzaldiak izango dira. Argibideetarako, deitu 945 25 01 47 telefonora.

### OÑATI

► **Emakumeei zuzendutako informatika ikastaroak** antolatu dituzte Foru Aldundiak eta Emakundek. 25-26 urte arteko emakumeek izango dute parte hartzeko aukera. Argibideetarako, deitu 943 78 21 50 telefonora, 09:00-13:00.0

# Zinema

### ARRASATE

**■ ALAI ZINEMA**

***Los lunes al sol***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

***Dragon hill***
Zapatua eta domeka: 17:00.

Martitzena, ikuslearen eguna.

**■ AMAIA ANTZOKIA**

***The spider***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

**■ NOVEDADES**

***El pianista***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 16:45, 19:30, 22:30.
Domeka: 16:45, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Felices dieciséis***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

**■ OÑATIKO ZINEA**

***Seguridad nacional***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***El planeta del tesoro***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Battle Royale***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

**■ UNZAGA**

***Hable con ella***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

**■ RIALTO**

***Amigas a la fuerza***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

**■ GURIDI**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Ocho millas***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***Hable con ella***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 22:30, 01:00.
Domeka: 22:30.

***Solaris***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Amor con preaviso***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***The ring: la señal***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Bloody Sunday***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

**■ MIKELDI ZINEMAK**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Ocho millas***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Las horas***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:45.
Domeka: 20:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Amor con preaviso***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***El planeta del tesoro***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***El pianista***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Hable con ella***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

**■ FLORIDA-GURIDI**

***Auto focus***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***El jardín de la alegría***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Un hombre sin pasado***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:15, 22:30.

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***La fidelidad***
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Frida***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***La vida de nadie***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***El adversario***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**■ STER ZINEMAK**

***El pianista***
Egubakoitza eta zapatua: 20:55, 00:10.
Domeka: 20:55.

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 20:10, 22:40, 01:10.
Domeka: 17:40, 20:10, 22:40.

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza: 19:30, 22:20, 01:10.
Zapatua: 16:35, 19:30, 22:20, 01:10.
Domeka: 16:35, 19:30, 22:20.

***Spy kids 2, la isla de los sueños perdidos***
Egubakoitza: 18:30.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:30.

***Seguridad nacional***
Egunero: 17:45.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egunero: 17:25.

***Solaris***
Egubakoitza: 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.
Zapatua: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.
Domeka: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30.

***Barridos por la marea***
Egubakoitza: 17:55.
Zapatua eta domeka: 16:10, 17:55.

***Ocho millas***
Egubakoitza: 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Zapatua: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Domeka: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza: 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***Riesgo extremo***
Egubakoitza eta zapatua: 20:40, 22:40, 00:40.
Domeka: 20:40, 22:40.

***Amor con preaviso***
Egubakoitza: 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.
Zapatua: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.
Domeka: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

**■ YELMO CINEPLEX**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:45, 21:30, 00:15.
Domeka: 11:35, 15:55, 18:45, 21:30.

***Frida***
Egubakoitza eta zapatua: 15:20, 17:35, 19:55, 22:15, 00:30.
Domeka: 11:45, 15:20, 17:35, 19:55, 22:15.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:30, 23:15.
Domeka: 11:30, 16:15, 19:30.

***The good girl***
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:35, 00:40.
Domeka: 20:30, 22:35.

***Amor con preaviso***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:30, 19:45, 22:30, 00:30.
Domeka: 11:45, 15:30, 17:30, 19:45, 22:30.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:30.
Domeka: 12:00, 16:20, 18:30.

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:15, 21:50, 00:20.
Domeka: 11:40, 16:30, 19:15, 21:50.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 11:35, 16:30.

***Ocho millas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:50, 20:00, 22:10, 00:25.
Domeka: 15:40, 17:50, 20:00, 22:10.

***Solaris***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:50, 19:50, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:10, 15:45, 17:50, 19:50, 22:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 18:00, 20:10, 22:25, 00:35.
Domeka: 12:15, 15:50, 18:00, 20:10, 22:25.

***The wild thornberrys***
Domeka: 12:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitza eta zapatua: 15:25, 17:40, 19:55, 22:10, 00:25.
Domeka: 11:50, 15:25, 17:40, 19:55, 22:10.

***Barridos por la marea***
Egubakoitza: 16:10, 18:15, 20:15, 22:20, 00:35.
Zapatua: 16:10, 00:35.
Domeka: 12:20, 16:10, 22:20.

***Seguridad nacional***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:05, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

***Riesgo extremo***
Egubakoitza eta zapatua: 19:40, 21:55, 23:50.
Domeka: 19:40, 21:55.

***Las horas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:20, 17:35, 19:55, 22:15, 00:25.
Domeka: 11:55, 15:20, 17:35, 19:55, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Un hombre sin pasado: ●●●●● / Los lunes al sol: ●●●●● / The spider: ●●●● / El señor de los anillos: las dos torres ●●●***

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### A PROPÓSITO DE SCHMIDT

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Alexander Payne.
**AKTOREAK:** Jack Nicholson, Hope Davis, Kathy Bates.

